


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**BIZKAIKO  
ESPERIENTZIA  
GELAK  
AULAS DE LA  
EXPERIENCIA  
DE BIZKAIA**

**IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA:** [ELEMENTOS Y EVOLUCIÓN HISTÓRICA DE LA MÚSICA](#)

**Irakaslea/Profesor/a:** **Jaime Cornelio Yacamán**

**Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura**

Irakasgaia teoriko-praktikoa da, musikan espezializatuta ez dauden ikasleentzat. Helburu nagusia da munduko kultura musikalak ezagutaraztea, hainbat ikuspegitatik, abiapuntu hartuta musikaren ezaugarri komunak eta bereizgarriak.

Kontuan hartuko dira hainbat tokitako musika ekoizpenak, ikuspegi historiko eta kultural batetik, eta ekoizpen horiek definitzen dituzten berezko ezaugarriak.

Aurkezpenetan, ikasleen artean banatuko da material bibliografikoa, ikus-entzunezkoa eta instrumentala, eta kritikoki parte har dezaten bultzatuko da, aurkeztuko diren proposamenetan.

**Gaitasunak/Competencias**

Entzunaldiaren bidez, musikaren elementu unibertsalak errekonozitzea eta ezagutzea.

Munduko musika kulturen ezaugarri nagusiak ezagutzea eta baloratzea.

Hainbat kulturatako musika ekoizpenak alderatzea.

**Edukiak/Contenidos**

1. gaia.- Soinuaren definizioa eta ezaugarriak. Soinu uhina eta soinuaren parametroak: altuera, iraupena, intentsitatea, tinbrea. Musikaren elementu unibertsalak: melodia, erritmoa, harmonia, forma eta testura.

2. gaia.- Musika Antzinatean: musika kulturak (Historiaurrea, Egipto eta Mesopotamia). Musika Antzinate Klasikoan: Grezia eta Erroma. Instrumentuak (kordofonoak, membranofonoak, aerofonoak eta idiofonoak) eta musika pasarte batzuen entzunaldiak.

3. gaia.- Musika Erdi Aroan. Instrumentuak eta musika taldeak. Formen eta estiloen deskribapena. Musika entzunaldiak.

4. gaia.- Musika Errenazimenduan. Instrumentuak eta musika taldeak. Formen eta estiloen deskribapena. Musika entzunaldiak.

5. gaia.- Musika Barrokoan. Instrumentuak eta musika taldeak. Formen eta estiloen deskribapena. Musika entzunaldiak.

6. Gaia.- Musika Klasizismoan. Instrumentuak eta musika taldeak. Formen eta estiloen deskribapena. Musika entzunaldiak.

7. gaia.- Musika Erromantizismoan. Instrumentuak eta musika taldeak. Formen eta estiloen deskribapena. Musika entzunaldiak.

8. gaia.- Musika XX. eta XXI. mendeetan. Instrumentuak eta musika taldeak. Formen eta estiloen deskribapena. Musika entzunaldiak.

### **Metodologia/**Metodología

Eskolak teoriko-praktikoak izango dira:

- Hainbat musika moten entzunaldi praktikoak (ikasleen parte-hartzeari zabalik).
- Banakako lanak edo talde txikikoak, aurrez aurreko saioetan.

Ikasgelako saioak egingo dira modu aktibo eta parte-hartzaile batean, tartekatuta, alde batetik, entzunaldiak eta musika lanen zatien irudiak; bestetik, azalpen teorikoak eta horiei buruzko iruzkinak.

### **Ebaluazio sistema/** Sistema de evaluación

Baloratuko da:

- Bertaratzea, Esperientzia Gelen araudian ezarritako ehunekoaren eta baldintzen arabera.
- Ikasgelan eginiko jardueretan parte hartzea.
- Hautazko lan pertsonal bat edo gehenez lau partaidetako talde baten lana entregatzea eta aurkeztea. Lana izango da irakasgaiarekin zerikusia duen gairen bati buruzkoa.

Lanaren luzera: 5-10 orrialde (1.500-3.000 hitz), Arial 11. Lerroartea (1.5), ertzak bi aldeetan. Ordenagailua erabili ezean, eskuz idatziko da, irakurtzeko moduko letrarekin (entrega: azken eskola eguna).

### **Bibliografia/Bibliografía**

Alsina, P. eta Sesé, F. (1995). *La música y su evolución*. Graó.

Benet, R. (2001). *Los instrumentos de la orquesta*. Akal Entorno Musical.

Holst, I. (1989). *ABC de la Música*. Taurus.

Michels, U. (1982). *Atlas de Música I y II*. Alianza Editorial.

Nettl, B., Rommen, T., Capwell, C. eta Wong, I.K.F. (2012). *Excursions in World Music*. Pearson

Picó, D. (2005). *Filosofía de la escucha. El concepto de música en el pensamiento de Friedrich Nietzsche*. Ediciones Planeta.

Polo, M. (2009). *Historia de la música*. Ed. Universidad de Cantabria

Remnant, M. (2002). *Historia de los instrumentos musicales*. Robinbook, Ma non troppo

Tranchefort, F.-R. (2004). *Los instrumentos musicales en el mundo*. Alianza Ed. Musical

Trias, E. (2010). *La imaginación sonora. Argumentos musicales*. Ed. Galaxia Gutenberg.

### Aldizkari digitalak

Distritojazz. <http://www.districtjazz.com>

Doce Notas. Revista de Música y Danza. <http://www.docenotas.com>

Jazztk. <https://jazztk.com/>

Mondosonoro. <https://www.mondosonoro.com/noticias-actualidad-musical/>

Musika klasikoari buruzko berriak.  
<https://www.codalario.com/criticas/codalario/>

Platea magazine. <https://www.plateamagazine.com/>

Ritmo. <https://www.ritmo.es/>

Scherzo. <https://www.scherzo.es/>